[Saltar al texto en castellano]

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, *Herritarren Txartela* kontratua arautzen duena (Erref. P1.3: 2.3)

[Jauzi egin aurkibidera]

1. Testuingurua

Durangoko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 5eko 36/2022 Foru Dekretuaren arabera, 1,3 milioi euroko kapital-transferentzia jaso du Herriak Egiten funts berezitik (teknologia-berrikuntzaren arloko inbertsio-planak garatzeko eta abian jartzeko funts publikoa), udalerriaren oinarrizko egitura ezartzeko. Oinarrizko egituratzat hartzen dira 6., 7. eta 9. kapituluetako aurrekontu-gastuak.

Udal honen helburu estrategikoak dira, informazio-sistemen modernizazioa, eta baliabide teknologikoen erabileran eguneraketak egin eta hobekuntzak ezartzea. Herritarren Txartela baliabide teknologikoen erabileraren hobetze prozesu honetan kokatuko dugu.

2. Kontratuaren gaia

Kontratu honetan, Durangoko Herritarren Txartela aipatzen dugunean, bai txartel fisiko bati buruz, zein antzeko funtzionalitateak edukiko dituen txartel birtual bati buruz (*app* bati buruz) arituko gara. Bi modalitateak kontratu honen objektu dira. Txartel fisikoak dauzkan erabileretako batzuk, telefono adimendunen haririk gabeko komunikaziorako teknologia darabilen aplikazio batek kudeatuko ditu ere. Txartel honek, dagoeneko Durangoko Udalak martxan dituen zenbait zerbitzu integratuko ditu, agiri honetan aurrerago zehaztuko ditugunak, alegia.

Proiektuak Herritarren Txartelaren soluzio integral bat eskatzen du, osagai hauek dituena:

- Herritarren Txartelaren plataforma nagusia.
- Udal zerbitzuetarako moduluak.
- Herritarren aplikazioa/webgunea.
- Herritarren Txartela jaulkitzeko postuak.
- Herritarren txartelak.

Hardware- eta software-produktu horiek guztiak beharrezkoak dira aplikazio mugikor baten bidez txartel fisikoak eta formatu birtualeko txartela jaulkitzeko, bai eta lehendik dauden udal-sistemen interfazeak ezarri, konfiguratu edo egokitzeko ere txartel horiek jasan ditzaten, herritartasun-identitatearen eredu bakarra zehaztu eta ezar dadin.

Era berean, Udalaren Herritarren Txartelaren proiektua garatzeko eta udal zerbitzuetan ezartzeko zerbitzuak behar dira. Zerbitzu horien helburua da, herritarrak edozein udal zerbitzu, ekipamendu edo tramiteren aurrean identifikatzeko bitarteko bat izatea, transakzio ekonomikoak barne.

Baldintza teknikoen plegu honetan, lizitatzaileak aurkeztutako eskaintzaren irismena eta Herritarren Txartela hornitu, instalatu, konfiguratu eta zerbitzuan jartzeko bete behar dituen baldintzak ezarriko dira.

Mota guztietako udal zerbitzuak (kirolak, liburutegiak, kultura, ingurumena, etab.) emateko euskarri denez gero, arreta berezia jarriko da planteatutako soluzioaren elkarreragingarritasunean, zerbitzu bakoitzerako gaur egun dauden irtenbideekin alderatuta.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

Herritarren Txartelak hainbat bide erabiliz zerbitzuaren kalitatea areagotzeari eragiten dio, hala nola eragiketen arintasuna handitzea, zerbitzuak banatzeko bide berriak jartzea eta informazioa herritarrengana gehiago hurbiltzea.

Zerbitzuak emateko denbora murriztea eta emandako balio erantsia gehitzea ahalbidetzen du, eta ondorioz, baita herritarraren gogobetetzea ere. Formatu fisikoa eta digitala ere izan behar ditu, eta gailu mugikor batean eramangarri izan.

Herritarren Txartelak zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko aukera emango du, honako hauek oinarri hartuta:

- Herritarren eta administrazio publikoaren arteko harremanetarako bide berriak izatea.
- Eragiketen arintasuna handitzea.
- Zerbitzu horiek banatzeko kanal berriak izatea.
- Herritarrengana informazioa gehiago hurbiltzea, 24x7 *web* kanalen eta autozerbitzuaren bidez.
- Zerbitzuak emateko denbora murriztea.
- Herritarrei zerbitzu eraginkorra, hurbila, arina eta azkarra ematea.
- Emandako balio erantsiaren eta, ondorioz, herritarraren gogobetetzearen gehikuntza orokorra.

Azken helburua administrazio adimentsuagoa, kanal anitzekoa, eta proaktiboagoa lortzea da.

“Giltza eskura” motako soluzio integral bat behar da, Herritarren Txartela zerbitzuan jartzeko behar den *software*a eta *hardware*a barne hartzen dituena, dauden sistemekin guztiz integratuta funtzionatzeko beharrezkoak diren lan, osagai eta elementu guztiak barne.

Europako Batzordearen Kontratuen Hiztegi Bateratua (CPV) nomenklaturari dagokion kodeketa hau da:

- 48825000-7 – Web zerbitzariak.
- 72210000-0 – Software-paketeen programazio-zerbitzuak.
- 72263000-6 – Softwarea ezartzeko zerbitzuak.

3. Kontratuaren baldintzak

3.1. Gutxieneko baldintza orokorrak

Herritarren Txartelaren funtzionalitate nagusiak, gutxienez, eta eskalagarriak, honako hauek izanen dira:

- Titularra udal administrazioaren aurrean identifikatzea, instalazio eta eraikinetara sartzeko (sarbide fisikoa) eta aplikazio eta sistemetara bitarteko elektronikoen bidez sartzeko (sarbide logikoa).
- Zenbait udal zerbitzutarako ordainbidea.

Printzipio horretan oinarrituta, ale-egituradun zerbitzu-multzo bat diseinatu behar da, haren osagaiak udal-erakunde bakoitzaren eskakizunak betetzea ahalbidetuko duena. Horrek gaur egunerako eta etorkizunerako onura ekarriko du: eragiketak egiteko erraztasuna, mantentze-lana murriztea, integritatea handitzea eta zerbitzu berriak lortzeko hazteko erraztasuna.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

Herritarren Txartel fisikoak gaur egun merkatuan dagoen segurtasun eta elkarreragingarritasun handiena bermatuko duen teknologia baten gainean egon behar du, betiere, herritarrak erabiltzeko erraztasunean eta erabiltzailearen esperientzia ezin hobean arreta jarriz.

Alde horretatik, kontakturik gabeko txartelek (*CTLS*) segurtasun- eta erabilera-erlazio bikaina eskaintzen dute. Txartelek ahalmen kriptografiko handiko hurbileko txip bat edukiko dute, kontakturik gabekoa.

Txartelek gaitasun teknikoa izango dute Herritarren Txartela proiektuaren xede diren zerbitzuei euskarria emateko, bai eta Baldintza teknikoen plegu honetan deskribatzen diren gainerako zerbitzuei ere, funtzionaltasunari, erabilgarritasunari eta segurtasunari dagokienez, eta aukera emango dute informazioa prozesatu eta gordetzeko, segurtasun eta sarbide mekanismo zehatzak barne.

Txartelen memoriak gutxienez 4 Kb-ko edukiera izanen du, egungo zerbitzuen funtzionamendua eta etorkizunean zerbitzu berriak gehitzea bermatzeko.

Txartelak datu hauekin estanpatuko dira: herritarraren datuak, koloretako argazkia, identifikazio-zenbakia, Udalaren identitate grafikoa, eta berehalako emisioetan, berehala eta ahalik eta hobekien erabiltzeko beharrezkoa edo komenigarria den gainerako informazioa.

Txartelek titularren identifikazio zehatza eta adierabakarrekoa ahalbidetu behar dute, bai eta horien bidez ordainketa segurua egiteko zerbitzua ere, ordainketa-pasaguneen bidez (kreditu-/zordunketa-txartelak), eta etorkizunean diru-zorroaren bidez ordaintzeko zerbitzua ezartzea aurreikusiko dute.

Diru-zorroaren kargak web orriaren, zerbitzu mugikorreko terminalaren, autozerbitzuko terminalaren edo balioztatze- eta kargatze-terminalaren bidez egin ahal izango dira (etorkizunean inplementatzen bada).

Txartelek administrazio publikoan nahitaezkoak diren segurtasun, irisgarritasun eta elkarreragingarritasun estandarrak beteko dituzte.

Plataformaren *backend*-a (edo kudeaketa-softwarea) eta interfazea (edo sarbide publikoko softwarea) *RWD* (*Responsive Web Design* edo *Web* diseinu moldagarria) web-aplikazio gisa diseinatuko dira, nabigatzaile estandar nagusietatik Internet bidez eskuragarriak, dagozkien *W3C* zehaztapenekin, eta irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretua beteko du, webgune eta aplikazio publikoetarako irisgarritasunari buruzkoa.

Aplikazio mugikorrak erabilgarri egongo dira *Android* eta *iOS* sistema eragileen azken bertsioen gainean eta *W3C*-ren (*Mobile Web Best Practices*) zehaztapenekin.

Plegu honetan adierazitako ekipamendua eman beharko da.

Durangoko Udalak Herritarren Txartela etorkizunean garatzeko eskubidea izango du, Plegu honen hornitzaile esleipenduna edozein dela ere; beraz, nahitaez bete beharko da eboluzio horiek egiteko beharrezko dokumentazio teknikoa eta funtzionala ematea.

3.2. Gomendatutako teknologia

Durangoko Herritarren Txartela *Mifare PLUS EV1 4 Kb* ukipenik gabeko teknologian oinarrituko da, arrazoi hauengatik:

- Erraz egokitzen da gaur egun ematen diren zerbitzuetara.
- Etorkizunean zerbitzu berriak ezartzeko gaitasun handia du.
- Horrelako txartelen prezio/zerbitzuen erlazioan lehiakortasuna.

- Teknologia irekia eta estandarra erabiltzea, etorkizunean Udala hornitzaile bakar batekiko mendekotasunik izan ez dadin, horrek lehian eragin, eta beraz, kostuak murrizten laguntzen baitu.

Herritarren Txartel Birtuala soluzioak Herritarren Txartel Fisikoa soluzioan dagoen segurtasun-mailaren baliokidea eman beharko du.

Herritarren Txartel birtualak txartel horien funtzionaltasun osoari eutsi beharko dio, herritarrei zerbitzu guztiak erabiltzeko aukera emanez, herritarrek txartel fisikoa edo birtuala erabiltzen duten kontuan hartu gabe.

Hauek dira txartel birtualaren helburu nagusiak:

- Herritarren Txartel birtualizatuan eta Herritarren Txartel fisikoan funtzionalitate bera izatea, erabiltzailea identifikatzeko txartel fisikoen datu pertsonalizatuak barne.
- Ahalik eta gailu mugikor gehienetan erabilgarri egotea.
- *NFC*ren gainean erabilgarria, hurbileko irakurgailuekin egiten diren zerbitzuetan egungo eta etorkizuneko erabilgarritasuna bermatzeko.
- Gailu mugikorraren *SIM* txartelarekiko independentzia.
- Erabiltzailearen datu-kontratuaren independentzia.
- Herritarren Txartel fisikoaren segurtasun-maila baliokidea.
- Herritarren Txartel fisikoaren eta Herritarren Txartel birtualaren aldiberekotasun-azterketa.
- Herritarren Txartel birtualaren erreplika hainbat gailutan aztertzea.
- Herritarren Txartel fisikoaren prozedura berak.

Gailu mugikor askotan *Mifare* emulatzea zaila denez, erabiltzaileak hardware-aldaketarik egin beharrik gabe eta hirugarrenekin akordiorik lortu gabe, Herritarren Txartel birtualak funtzionatzeko modu hauek hartu beharko ditu kontuan, gailu mugikorraren ahalmenen arabera:

- *NFC* komunikazioa *NFC* gailuetan eta *Android*-en sisteman.
- *QR* kodea irakurtzea gainerako gailuetan.

NFC komunikazioa da nagusi, hura jasaten duten gailuetan.

Irtenbide misto horren bidez, Herritarren Txartel birtuala gailu mugikor askotan eskain daiteke.

Oro har, Herritarren Txartelaren sistemak ezartzeko, arkitektura integragarria erabiliko da, sistema propioekin eta kanpokoekin erabiltzeko modukoa. Diseinu eskalagarria du, modularra eta ebolutiboetara egokitzen dena.

3.3. Enpresa esleipendunak garatu beharreko zerbitzuak eta betebeharrak

Enpresa esleipendunak behar diren konfigurazio guztiak egin beharko ditu proiektua behar bezala ibil dadin, besteak beste:

- Hornitutako azpiegitura guztiaren ahalmen, errendimendu eta eskuragarritasun ezin hobea lortzeko konfigurazio eta parametrizazio egokia, osagai bakoitzak egingo dituen funtzioak eta hartuko dituen azken zerbitzu zehatzak kontuan hartuta. Zehazki, soluzioaren instalazioa eta konfigurazioa, eskaintza osatzen duten sistema guztien instalazioa, konfigurazioa eta optimizazioa barne, eta segurutasun politiken lehen definizioa.
- Sistemak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren segurtasun politikak sortu edo migratzea. Hornitzaileak Udaleko Informatika Saileko langileen laguntza izango du.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

- Egindako instalazioaren probak. Egin beharreko proben plangintza jasotzen duen agiria emanen da. Bertan, gutxienez, funtzionamendu, erabilgarritasun eta errendimendu probak sartuko dira. Probak bukatutakoan, haien dokumentazioa osatuko da.
- Udaleko departamentuko langileentzako prestakuntza teknikoa, eskainitako konponbidea kudeatu eta administratzeko.

3.4. Herritarren Txartela kudeatzeko plataforma

3.4.1. Deskribapen tekniko orokorra

Deskribapen tekniko orokorraren alderdiak:

- Web teknologia: *Java J2EE* teknologian oinarrituko da irtenbidea, *Java* makina birtualarekin bateragarria dena, edo baliokidea.
- Malgutasuna: arkitektura malguaren gainean garatuko da, Durangoko Udalaren nahiz herritar, enpresa eta erakundeen beharren estaldura bermatuz.
- Segurtasuna: proposaturiko soluzioak segurtasun fisiko eta logiko handiena bermatzeko behar diren tresnak izanen ditu, segurtasun zuloak saihesteko.
- Integrazioa: integraziorako mekanismo estandarrak eskainiko dira, bai proposaturiko soluzio teknologikoaren, bai horien eta dagoeneko ezarrita dauden soluzioen artean.
- Estandarrak betetzea: estandar irekiak bete behar dira.

Herritarren Txartela ezartzeko, txartela kudeatzeko plataforma bat jarri behar da, haren bizi-ziklo osoa beteko duena (jaulkipena, ordezkapena, eragiketak, kontsulta, blokeoa eta bajak). Lizitatzaileek proposatutako irtenbideak *smartcity* osoa eta integratua izan behar du, deskribatutako sistema guztien elkarreragingarritasuna ekarriko duena, giltza eskura, eta Baldintza teknikoen plegu honetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituena.

Plataformak funtzionalitate hauek izan behar ditu:

- Herritarren Txartelaren bizi-zikloa kudeatzea, azpiprozesu hauek barne: eskaera, alta, pertsonalizazioa, igorpena, aldaketa eta/edo ordezkapena eta baja.
- Txartelaren titularrak kudeatzea. Titularren datuak kontsultatu eta aldatzea, eta txartela erabiltzeko baldintzak aldatzea.
- Txartel bati lotutako udal zerbitzuen kudeaketa. Txartel bati lotutako udal zerbitzuak aktibatzea edo aldatzea.
- Herritarren Txartelaren aurkako eragiketak kudeatzea. Txartelarekin egindako eragiketak kontrolatzeko eta kudeatzeko prozesua. Herritarren Txartelarekin egindako eragiketak erregistratzen dira, bai eta erabilera-eremuarekin lotutako informazio gehigarria ere.
- Iruzurraren kudeaketa. Erabilera desegokiaren kontrola eta txartelaren blokeoa.
- Txartelaren egoeren kudeaketa.
- Txartel birtuala.
- Autentifikazio eta baimen zerbitzuak.
- Erabiltzaileak autentifikatzea.
- Erabiltzaileen baimenak.
- Pasahitz seguruaren bidezko identifikazioa.
- Pasahitza ezarri eta berreskuratzea teknika seguruen bidez.
- Pasahitza iraungitzea.
- Eragiketak likidatzeko prozesuak.
- Erabiltzaileen segmentazioa.
- Integratuta ez dauden zerbitzuen fitxategietatik egiten diren eragiketen inportazioen motorra.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

- Adierazleak argitaratzeko zerbitzuak.
- Eskaerak eta tituluak ordaintzeko pasabidearen bidez ordaintzea.
- Herritarren Txartela konfiguratzea.
- Kanpoko zerbitzu integratuetako *API*etan sartzeko *token*a egiaztatzea.
- Txartelen gakoak kudeatzea.
- Fluxuaren kontrola eta lehentasunak.
- Auditoretza sistemak.

Etorkizunean funtzionalitate eta zerbitzu berriak sartzeko aukera izango du plataformak, finkoak nahiz noizbehinkakoak izan (biltzarrak, ekitaldiak, etab.), etorkizuneko esleipenetan ezarriko direnak.

Tresnak nabigazio atsegin eta intuitiboa erraztu beharko du, estetika atseginean eta erabilera errazean oinarrituta. Web-aplikazio bat izanen da, *responsive* edo moldagarria, garapen estandarreko gida-lerroak erabiliko dituena, banaketa zabal eta plataforma anitzekoa.

Plataformak *API* bidezko integrazio-sistemak edo web-zerbitzuak izan beharko ditu plataformaren funtzionalitate nagusietarako.

Plataformak aplikaziorako interfaze bat izan beharko du kudeaketarako, eta web-zerbitzuen interfaze bat eta datuak ateratzeko prozesuak, beste udal-sistema eta herritarren atariekin integratuta, Herritarren Txartela kudeatzeko.

Diseinu fasean, jarduketa protokoloak ere definitu beharko dira kasu hauetan gutxienez:

- Txartelak emateko prozedura.
- Erabiltzailearen identifikazioa.
- Pertsonalizazio grafikoa.
- Pertsonalizazio elektronikoa.
- Aktibazioa.
- Txartelaren datuak aldatzeko prozesuak.
- Herritarren Txartela iraungi edo hondatuz gero, berritzeko prozesuak.
- Galdu edo lapurtuz gero, Herritarren Txartela berritzeko prozesuak.
- Herritarren Txartela uzteko prozesua.
- Baja emandako Herritarren Txartela berriro aktibatzeko prozesua.

3.4.2. Deskribapen funtzional orokorra

Xedea

Txartela honetarako erabil daiteke:

- Liburutegi-zerbitzuak.
- Kirol zerbitzuak.
- Udal-instalazioetara sartzeko kontrol-zerbitzuak.
- Ingurumen zerbitzuak.
- Adineko pertsonentzako taxi zerbitzuak.
- Herritarrendako Laguntza Zerbitzua.
- Beste batzuk.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

Profilak

Herritarren Txartelak bere erabilera-eremua zehaztu eta murriztuko duten zenbait profil ditu: herritarra, ez-egoiliarra, adin txikikoa, turista, kongresista eta funtzionarioa. Eskaera egitean, interesdunak adierazi behar du zein profil hautatuko duen baldintzak betetzen badira.

Titularrak

Herritarren Txartelaren titular izan daitezke bertan sartutako zerbitzuren bat erabili nahi duten pertsona fisiko guztiak, Durangoko Udaleko biztanleen erroldan alta emanda badaude.

Herritarren Txartel birtualaren titular izan daitezke txartel horretan sartzen diren zerbitzuak *smartphone* batetik erabili nahi dituzten pertsona fisiko guztiak, hala eskatzen badute.

Herritarren Txartel fisikoaren titularra bere homologo birtualarena ere izan daiteke, eta alderantziz. Beraz, titular horrek aldi berean erabili ahal izango du Herritarren Txartela bere formatu fisiko eta birtualean.

Ez egoiliarrentzako (turista, kongresista, etab.) Herritarren Txartelaren titularra beronen eramailea izango da.

Herritarren txartelak, mota guztietakoak, Durangoko Udalarenak dira.

Erabilera-eremua

Herritarren Txartelak onartutako zerbitzuak ordaintzeko eta/edo identifikatzeko bide gisa erabiltzeko aukera emango du, eta atxikitako beste zerbitzu batzuetan ere erabili ahal izango da, hala publikoak nola pribatuak, Durangoko Udala akordioetara iristen denean.

Eskaera

- Txartela aurrez aurre eskatu ahal izango da Herritarren Txartela kudeatu eta tramitatzeko bulegoetan, horretarako adierazten diren udal bulegoetan, edo urrunetik eskatu ahal izango da, dagokion eskabidea betez.
- Interesdunak berak edo behar bezala baimendutako ordezkariak egin beharko du eskaera.

Berritzea eta ordezkatzea

- Herritarren Txartelak iraungipen jakin bat izanen du.
- Txartela erabiltzea eragozten edo zailtzen duen txartela hondatzen bada, titularrak horren berri eman beharko du ezarritako bulegoetan, berritze eskaera egin ahal izateko. Kasu guztietan, ordeztuko den txartelarekin batera aurkeztu beharko da.
- Txartela galdu edo lapurtuz gero, titularrak horretarako ezarritako edozein bulegotan jakinarazi beharko du, eta horrek txartela blokeatu eta baliogabetzea ekarriko du.
- Ordezkatutako txarteleko saldoak eta tituluak sartzen ahalko dira txartel berrian, zerbitzu guztietan txartela baliogabetu ondoren.

Kargatzeak

Herritarren Txartelaren kasuan, aurrez ordaintzeko modalitatean:

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

- Herritarren Txartela kargatzeko/birkargatzeko eragiketek berekin dakarte eskudirua berehala ordainketa-unitate bihurtzea, eta eragiketa hori ez da inola ere gordailutzat hartuko, eta eragiketa hori guztiz itzulezina da. Horregatik, erabiltzaileak ez du ahalmenik izango Udalari eskatzeko erabili gabeko ordainketa unitateen itzulketa.
- Ordainketa-unitateen iraupena 24 hilabetekoa izango da, azken kargatzea egin zen egunetik hasita.

Txartelaren ezaugarriak

- Herritarren Txartela kontakturik gabeko teknologia txartela da; ezaugarri teknikoak udal akordioetan ezarriko dira. Horiek teknologiaren bilakaeraren arabera aldatzen ahalko dira.
- Era berean, ezaugarri desberdinetako txartelak erabiltzen ahalko dira, baldin eta erabiltzeko baldintzak mantentzen edo hobetzen badira.
- Txartel birtuala erabilgarri egongo da aplikazio mugikorrean. Erabiltzaileak loturaren prozesua egin beharko du gailuan, txartela gailu horren bidez erabili ahal izateko.
- Txartel birtuala gailu batean bakarrik erabil daiteke. Gailu berri batekin lotuz gero, aurreko gailutik bereiziko da.
- Txartelak *QR* kode bakarra du, erabiltzailea zalantzarik gabe identifikatzeko.
- Txartela *QR* kodearen eta txartelaren zenbaki bakarraren ondoan bistaratzen da.

Txartelaren edukia

- Herritarren Txartelak, bere modalitateetan, grafikoki jasoko ditu titularraren honako datu hauek:
    - Aurrealdea:
        - Izen-deiturak.
        - Titularraren argazkia.
        - Barra-kodeen formatuan irudikatutako identifikatzailea.
        - Iraungitze-data.
    - Atzealdea:
        - Txartelaren identifikazio-kodea.
        - *QR* kodean irudikatutako identifikatzailea.
- Profil turistikoa edo kongresukidea duen Herritarren Txartelak ez du datu pertsonalik jasoko. Durangoko Udalak emisio-prozedura bakoitzean egokitzat jotzen duen informazioa jasoko du.
- Txartelean sartutako memoriak datu pertsonalak eta onartutako zerbitzuei buruzkoak izango ditu.

PIN pertsonala

- Txartelak *PIN* pertsonala izanen du, lau digitukoa, zerbitzu jakin batzuetarako sarbide segurua izateko.
- Herritarren Txartelak lehenespenez duen *PIN*a aldatu ahal izango da txartelaren titularrak nahi adina aldiz.
- Txartelaren titularraren edo haren ordezkariaren ardura da *PIN*a behar bezala erabili eta zaintzea, konfidentzialtasuna bermatuz.
- Profil turistikoa edo biltzarkidea duen Herritarren Txartelak ez du *PIN*ik izango.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

Konfidentzialtasuna

- Txartelaren eskaeran agertzen diren datuak titulartasun publikoko eta udal xedeko fitxategi automatizatu batean sartuko dira. Fitxategi horren helburua da txartela jaulki, mantendu, erabili, eguneratu eta baliogabetzea.
- Eskatzaileak fitxategian dauden datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak erabili ahal izango ditu fitxategiaren arduradunaren aurrean.
- Udalak, behar izanez gero, zerbitzu hori erabiltzen duten Herritarren Txartelaren titularrenak soilik diren eta haien eskaeran agertzen diren datu pertsonalak laga ahal izango dizkie atxikitako zerbitzuei lotutako erakunde autonomoei eta udal enpresei.

Datu-baseetarako sarbidea

- Txartela kudeatzeko informazio-sistemak Herritarren Txartela sistemaren funtzionamendurako beste datu-base batzuetara sartu ahal izango dira, eskaera-prozedura sinplifikatzeko eta emandako datuak zuzenak direla egiaztatzeko, interesdunak baimena eman ondoren. Baimen hori eskaeraren formularioan jaso beharko da.
- Egindako egiaztapenetik interesdunak berak emandako datuekin bat ez badator, hori argitzeko egin beharreko jarduerak egingo dira.
- Herritarren Txartela ez da emango interesdunak bere datuak kontsultatzeko baimenik ematen ez badu, txartela eskuratzeko eskatutako datuak eta bere titulu edo erabilera-baldintza bereziak egiaztatzeko behar diren fitxategietan.

3.4.3. Udaleko eragiketa-teknikarientzako funtzionalitateak kudeaketa-tresnan

Kudeaketa-tresnak, gutxienez, funtzionalitate hauek izan beharko ditu kontuan, diseinu-lanetan gehitu beharrekoei kalterik egin gabe:

- Erabiltzaileen kudeaketa: tresnak erabiltzaileen altak eta bajak kudeatuko ditu, datu, baimen eta zerbitzu guztiak gaituta, baita baimenak blokeatu eta desblokeatzeko aukera ere. Tresna hori Biztanleen Udal Erroldarekin konektatuko da *API* konexioen, web-zerbitzuen edo Udalak adierazitako bitartekoen bidez, behar diren egiaztapenak egiteko.
- Txartelen kudeaketa: Herritarren Txartelen datuak kudeatzeko eragiketak jasoko ditu, honako hauek barne: txartelen alta-prozesua, txartelak inprimatu, berritu, integratu beharreko udal-zerbitzuak aktibatu, txartelen titularren datuak kontsultatu eta aldatu, gorabeherak kudeatu, etab.
- Zerbitzuen kudeaketa: Herritarren Txartelean sartutako zerbitzuen altak, bajak eta aldaketak sartzen dira, informazio tekniko eta operatiboarekin, horien erabilgarritasuna adierazita, etab.
- Konfigurazioa: sistemako moduluen konfigurazio-prozesuak barne hartzen ditu, hala nola:
    - Txartelen egoera, txartelen zerrenda, zerrendetan sartzeko arrazoiak, etab.
    - Likidazio-prozesuak: truke-fitxategien egitura, likidazioen maiztasuna.
    - Komunikazioak: parametro teknikoak (IP, portuak), gako bidezko segurtasuna, enkriptatzeko sistemak, etab., protokoloak, tarteak, etab.
- Igorpen modulua: txartelak erregistratu, jaulki eta emateko prozesuak biltzen ditu:
    - Eskabidearen erregistroa: edozein udal bulegotan bertaratuta jaso daiteke, edo Udalaren web-orriaren bidez, posta elektronikoaren bidez edo horretarako gaitzen den beste edozeinen bidez.
    - Eskatzailearen identifikazioa eta datuak prozesatzea (datu-baseetan alta ematea, zerbitzuak esleitzea, barra-kodea sortzea, etab.).
    - Txartela ematea: erabiltzailearen datuak txipean grabatzea, Herritarren Txartela inprimatzea, balioa egiaztatzea.

- Txartela jaso izanaren erregistroa bertara joanda, edo postaz bidalita eskatzailearen helbidera.

- Informazioaren kudeaketa: Herritarren Txartela bere formatu birtualean erabiltzeari buruzko txostenak ateratzeko aukera emango du, aplikazio mugikorretatik erabiltzeko datu anonimoak bilduz: erabilitako zerbitzuak, txartelen kopurua eta egoera, etab. Datuak *CSV* (*comma-separated values*) formatu irekira esportatzeko aukera emango du, ondoren tratatu eta aztertzeko. *XML* fitxategiak igotzeko modulu bat emango du, hirugarrenek kudeatutako eragiketen fitxategiak aldian-aldian kargatu ahal izateko.

3.4.4. Herritarrentzako funtzionalitateak

Kudeaketa-tresnak web-helbide bat izango du, Herritarren Txartelaren erabiltzaileentzat irisgarria, erabiltzaile eta pasahitz bidez. Horrek jarduera hauek egiteko aukera emango du:

- Kontsultatu Herritarren Txartelaren egoera formatu fisiko eta birtualean: eskatua, produkzioan, jasotzeke, aktibo, bajan, etab.
- Azken eguneratze-datan egindako eragiketen historia kontsultatu.
- Herritarren Txartelak dituen kontsulta-funtzionalitateak ere jaso beharko ditu.

3.4.5. Zerbitzuen osagai komunak

Arkitektura modularrean eta eskalagarrian oinarrituta, osagai komunak diseinatu eta ezarriko dira udal zerbitzu guztietarako, gaur egungoetarako eta etorkizunekoetarako, hauen eraginkortasunean eta Herritarren Txartelarekin integratzen laguntzeko.

Zerbitzu orokorreko osagai horiek mikrozerbitzuen modulu gisa definitzen dira, udal-zerbitzu bakoitzaren berariazko eskakizunetara egokitzeko eta erantzuteko aukera ematen dutenak, Herritarren Txartelaren plataformaren berezko funtzionaltasunari eta funtzionalitate estandarrari eutsiz. Hauek dira, gutxienez, ezarri beharreko osagai komunak:

- Zentroak, egutegiak, enpresak eta terminalak kudeatzea.
- Profilak eta herritarrak kudeatzea.
- Sistemaren profilak eta erabiltzaileak kudeatzea.
- Jakinarazpenen web-zerbitzua.
- Txostenen web-zerbitzua.
- Esparruko informazioaren web-zerbitzua.

3.4.6. Zerbitzu generikoaren backend-a (barne kudeaketa-softwarea)

Zerbitzu bakoitzaren informazio espezifikoa jasotzeko moduluren bat diseinatu behar da (zerbitzuaren *backend*-a), berezko diseinu-irizpideen arabera.

Asmoa da zerbitzu-puntuen sarearen eta Herritarren Txartelaren *backend*aren arteko lotura definitzea, eta Herritarren Txartelarekin egindako txartel-transakzio guztiak zerbitzu-puntuen sarean jaso eta web-zerbitzuen bidez bidaltzea, gero prozesatu ahal izateko. Komunikazio hori behar adinako maiztasunez eguneratu beharko da, eta *on-line* puntuen kasuan, denbora errealean.

Hauek dira funtzionalitate nagusiak:

- Web-zerbitzuen bidezko integrazioa Herritarren Txartelaren plataformarekin.
- Herritarren Txartela erabiltzeko informazioa bidaltzea.
- *GUI* (*Graphic User Interface*) bat web-ean, txartela kudeatzeko eta administratzeko.
- Zerbitzu-puntuekin integratzea.
- Txartelen konfigurazioa eta parametrizazioa.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

- Herritarren Txartelaren irakurle/grabatzaileen liburutegiak kudeatzea.
- Herritarren Txartelarekin elkarreragina izatea zerbitzuen kudeaketa-puntuetan web-interfazearen bidez.

3.4.7. Zerbitzu-puntu generikoa

Zerbitzu puntu bat modulu berezi bat da, udal zerbitzu bakoitzerako garatu behar dena eta hornitu beharreko *hardware*an (edo Udalaren eskura dagoenean) ezarriko dena udal zerbitzu bakoitzaren zerbitzu gune bakoitzerako.

Zerbitzu-puntu generikoa osagai estandar gisa diseinatuko da, zerbitzu-puntu espezifikoen funtzionalitate komun guztiak beteko dituena, eta dagokion zerbitzu-punturako *hardware*an ezarriko dena.

Funtzionalitate nagusi hauek izan behar dituzte:

- Puntu mugikorrean diharduten udal langileak egiaztatzea.
- Herritarren Txartelaren informazioa irakurri eta kontsultatzea.
- Herritarren Txartelaren gaineko akzio zerrendak kudeatzea.
- Herritarren Txartelaren erabiltzaileen sarrera-kontrola.
- Herritarren Txartelarekin zerbitzuak erosi eta deuseztatzea.
- Finkatu beharreko eragiketa geroratuen prozesamendua.
- Tiketak/ordainagiriak inprimatzea.

Zerbitzu orokorreko puntu mugikorra modu seguruan integratuko da Herritarren Txartelaren plataformaren *API*aren bidez.

3.4.8. Zerbitzu generikoaren puntu birtuala

Zerbitzu generikoaren puntu birtuala web-osagai estandar gisa diseinatuko da, *on-line* eskaintzen diren udal zerbitzuen funtzionalitate komun guztiak beteko dituena, hala nola erreserba, alokairu eta identifikazio sistemak Interneten.

Hauek dira funtzionalitate nagusiak:

- Herritarra identifikatzeko *CSS* bidez parametriza daitekeen interfazea.
- Herritarra Herritarren Txartelaren egiaztagirien bidez identifikatzeko formulario bat beste web-aplikazio batzuetan modu seguruan txertatzeko aukera ematen du.
- *API RESTful* bat herritarra identifikatzeko.
- Kanpoko sistemei aukera ematen die herritarra identifikatzeko Herritarren Txartelaren kredentzialen bidez, *host-to-host* komunikazio baten bidez.
- Herritarraren ordainketak egiteko *CSS* bidez parametriza daitekeen interfazea.

3.4.9. Zerbitzuak

Zerbitzu berriei plataforman alta emateko prozedura baimendutako kudeatzaileek egingo dute *backend*-aren *Web Manager*-etik.

Plataformak zerbitzu berriak lehendik dauden konektoreekin (*API*ak, web-zerbitzuak eta *ETL*ak – *Extract, Transform and Load*) integratzeko gaitasuna izango du, prozesu erdiautomatikoen bidez txertatzeko.

Zerbitzu berriek plataformaren konektoreetara egokitzeko gaitasunik ez badute, zerbitzu berri honen eskakizunak betetzen dituen konektore berria sartu beharko da udal zerbitzuen moduluan.

Era berean, berariazko prozesu bat behar izanez gero, ezarritako interfazeak bete eta udal zerbitzu berriarekin elkarreraginean aritzeko *backend* berezi bat gehitzen ahalko da.

Herritarren Txartelaren plataforma, soluzio eskalagarri, modular eta moldagarri gisa diseinatuko da, etorkizunean zerbitzu berri horiek esku-hartze zehatz baten bidez sartzea bermatzeko.

Zerbitzu berri bat sartzeko, Herritarren Txartela plataforman honako hauek zehaztu eta parametrizatu beharko dira:

- Udal zerbitzuaren datuak.
- Zerbitzuaren datu nagusiak (ikastetxeak, langileak, terminalak, etab.).
- Herritarren Txartela erabiltzea (autentifikazioa, ordaintzeko modua, etab.).
- Konfigurazio-parametroak.
- Zerbitzuaren kontsumo-puntuak.
- Herritarren Txartela plataformarako lokailuak.
- Akzio zerrendak.

3.4.10. Arkitektura teknikoa

Plataformaren *backend*-a eta *frontend*-a *RWD* (*Responsive Web Design*) web aplikazio gisa diseinatuko dira, nabigatzaile estandar nagusietatik Internet bidez eskuragarriak, dagozkien *W3C* zehaztapenekin.

Arkitektura logikoa hainbat geruzatan aurkeztuko da, non plataformaren modulu bakoitza kokatuko baita.

Geruzakako egitura bat ezarriz, honako deskripzio honen arabera:

- Biltegiratze-geruza. Plataformaren eta monitorizazioaren datu-base erlazionalen eskemen bidez, herritarrari zerbitzuak emateko behar diren datuak gordetzeko lanak programatuko dira. Aurreko atalean hautatutako datu-baserako babeskopia-planak barne hartuko ditu asteko kopia osoak, kopia partzialak egunean bitan eta *log*-ak iraultzea 5 minutuan behin; horrela, konfiguratzen den atxikipen-aldian ia minutuan berrezartzea bermatuko da. Horregatik, kontu handiz (*tunning*) hartuko da idatzi beharreko datuen bolumena (datuak sartzea, ezabatzea edo eguneratzea).
- Monitorizazio-geruza. Geruza honi esker, monitorizazio-agenteak instalatu ahal izango dira makinetan. Agente horiek informazioa bilduko dute eta monitorizazioko datu-baseari zuzenean erantsiko diote. Informazioa hemendik bilduko du:
    - Sistema eragiletik.
    - Zerbitzuen *log*etatik.
    - Zerbitzuekiko konektibitatetik.
    - Sistemaren alertak dituen *Dashboard*-a bistaratzea.
    - Sistemaren konfigurazioa.
    - Monitorizazio zerbitzuaren erabiltzaileak kudeatzea.
    - Posta elektronikoaren bidezko alerten kudeaketa.
- Zerbitzu-geruza. Geruza horrek Herritarren Txartelaren plataformarekin jarduteko behar diren zerbitzuak emango ditu. Era berean, geruza horrek zerbitzuak kontsumitu edo esportatuko ditu *API*en bidez, eta eskatutako eragiketa osatzeko behar diren kanpoko zerbitzuekin komunikatuko da.
- Elkarreragingarritasun-geruza. Plataformari beste sistema batzuekin datuak eta informazioa trukatzeko gaitasuna ematea izango du helburu.
- Aurkezpen maila. Argitaratutako interfazeen bidez, Herritarren Txartelak emandako zerbitzuak erabili, operatu eta administratu ahal izango dira.

Beraz, aplikazioaren diseinua modularra izango da. Alde batetik, modulu bat izango du (*core* edo *backend* izenekoa), Herritarren Txartelaren edozein plataformaren funtzionalitate komunekin, eta bestetik, integrazio-elementuak izango ditu plegu honetan deskribatzen diren Udalarentzako integrazio pertsonalizatuak gauzatu ahal izateko.

Azken modulu hau *core*tik erabat bananduta egongo da eta *web services* bidez erabiltzeko aukera emango du. Modulu horiek guztiz operatiboak izango dira modu independentean, eta Udalaren beste tresna batzuek erabiltzen ahalko dituzte, dagozkien segurtasun neurriekin.

Integrazioak funtzionamendu egokia ahalbidetuko du, behar diren zerbitzuak eman ahal izateko. Funtzionatzeko behar diren lizentzia guztiak kontratu honetan sartuko dira, Udalarentzat inolako kosturik gabe.

Plataforma deituko diogu *core*ak (*backend*) eta integrazio-elementuak osatutako multzoari.

3.4.11. Zerbitzarien arkitektura

Sistemak Herritarren Txartelaren plataformaren eskuragarritasun eta eskalagarritasun handia bermatu beharko du. Proposatutako irtenbidea makina birtualen gainekoa bada, Udalak beharrezko azpiegitura hornituko du, eta makina birtual horiez gain beste ekipamenduren bat behar bada, esleipendunak eman beharko du. Beste edozein irtenbidetarako, esleipendunak eman beharko du behar den ekipamendua. Prestasun handia bermatu behar da.

3.4.12. Herritarren webgunea eta aplikazioa

Erabiltzaileek web/app bidez eskuragarri edukiko duten gunea izango da, beren datuak eta txartelarekin egindako eragiketak kontsultatu ahal izateko. Bloke honen funtzionaltasunari esker, titularrek txartelarekin lotutako datuak kontsultatu ahal izango dituzte, txartelarekin eragiketak egin ditzaketen udal-zerbitzuak kontsultatu ahal izango dituzte eta txartelaren erabilera kontsultatu ahal izango dute.

Web-aren bidez eta aplikazio mugikorraren bidez emandako zerbitzuetan banatuta dago *frontend*-a. Bai *app*-a bai *frontend*-a segurtasun- eta ikuskapen-moduluekin integratzen dira. Hala, erabilera-informazioari buruzko aztarnak bildu, eta informazioa aztertu ahal izango da, bai tabularki bai grafikoki.

Webgunea Udalaren webgune korporatiboan sartu beharko da, eta zerbitzu hauek izanen ditu:

- Sarbide publikoa:
    - Herritarren Txartelari buruzko informazioa.
    - Herritarren Txartela eskatzea.
    - Herritarren Txartela kargatzeko sarea.
    - Udal zerbitzuak.
    - Eskaera ST birtualaren bidez ordaintzea.
    - Kexak eta iradokizunak.
- Sarbide pribatua:
    - Eskaeraren egoera.
    - Herritarraren profilari buruzko informazioa.
    - Herritarren Txartelaren profilari buruzko informazioa.
    - Saldoa eta mugimenduak.
    - Komunikazioak.
    - Kexak eta iradokizunak.
    - Banku-txartela tokenizatzea *PCI-DSS* eta *PSD2* ordainketa-pasabidearen bidez.

3.4.13. Web / app-aren ezaugarriak

Aplikazioak zerbitzu berak izan beharko ditu, bai eta Herritarren Txartel birtuala eduki eta kudeatzeko gaitasuna eta *push* komunikazioak kudeatzeko gaitasuna ere.

Herritarren Txartel birtualaren *backoffice*-ak *QR* dinamikoak sortzeko aukera emango du, erabilera bakarrekoak eta iraungipendunak, aplikazio mugikorrera *webservices* bidez hornitzeko.

Herritarren Txartel fisikoa duen erabiltzaile batek txartel birtual bat izan dezake bere gailu mugikorrean, hainbat eremutan jarduteko edo identifikatzeko, txartel fisikoarekin ariko balitz bezala.

Gailu mugikorrean instalatutako aplikazioa Herritarren Txartelaren erabiltzailearekin lotzeko/deslotzeko prozedurak ezartzen dira, baita emandako birtualizazio-eskaerarekin ere.

Erabiltzaileak txartelaren eta *backend*-aren arteko lotura eskatuko du aplikazio mugikorretik. *Backend*-ek lotura-helbide elektroniko bat sortuko du, eta erabiltzailearen helbide elektronikora bidaliko da.

Erabiltzaileak e-mailez jasotako lotura egiaztatuko du.

Erabiltzailea posta elektronikoari buruzko aurreko ekintzaren bidez egiaztatu ondoren, txartela lotuta eta aktibo geratuko da lotura-eskaera egin zuen gailuan.

Era berean, gailu mugikorra bereizteko prozedura gaituko da, txartelarekin eragiketak egiteko gailu baimendu gisa erabiltzen ez jarraitzeko, beste gailu bat lotu ahal izateko.

RWD (*Responsive Web Design*) web-aplikazio gisa diseinatuko dira, nabigatzaile estandar nagusietatik Internet bidez eskuragarriak, dagozkien *W3C* zehaztapenekin, eta sektore publikoko gailu mugikorretarako web guneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzko irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretua beteko dute.

Durangoko Herritarren Txartelak kudeatu eta administratzeko aukera ematen duen web-tresna baten diseinu funtzional, organiko eta grafikoa egingo da, proiektuaren zuzendaritzak horretarako izendatzen dituen udal langileek erabiltzeko.

3.4.14. Herritarren Txartel motak

Herritarren Txartela ezartzeak bi txartel mota sortzea dakar, bata fisikoa eta bestea birtuala.

Txartel fisikoa

Txartel fisikoek herritarra identifikatzeko hainbat elementu izango dituzte: identifikazio inprimatua (izen-deiturak, NAN/AIZ edo udal kodea, argazkia, barra-kodea) eta haririk gabeko antena, aurreko datu guztiak eta txartelaren beraren serie-zenbakia.

Herritarren Txartelaren diseinu grafikoa ere eginen da, Udalarekin adostu beharko dena. Horretarako, fase honetan, lan-bileretan behin betiko diseinua zehazteko erabiliko diren txartelaren hiru diseinu ezberdin prestatu eta aurkeztuko zaizkio proiektuaren zuzendaritza teknikoari. Diseinuek bertsio fisikorako nahiz birtualerako ereduak izango dituzte.

Enpresa esleipendunak, proiektuaren esparruan, Durangoko Herritarren Txartelaren nortasun grafikoari buruzko eskuliburua egingo du, txartel fisikoaren zati ikusgarriak zehazteko. Txartel birtualerako aplikazio mugikorraren diseinu grafikorako jarraibideak ere eskuliburu horretan sartuko dira.

Txartel fisikoen diseinuak kuatrikromian inprimatu beharko dira, bai txartelaren aurrealdean bai atzealdean. Txartelen azken produkziora igaro aurretik, esleipendunak diseinuaren simulazio osoa emango dio Udalari, hau da, txartelaren aurrealdea eta atzealdea erakusten duen kolorezko irudi grafikoaren azken lagina, azken diseinua eta inprimatze-kalitatea baloratzeko.

Txartelak *NFC* protokoloarekin bateragarria izan behar du.

Udalari txartelaren mapa elektronikoa eta A eta B gakoak eman beharko zaizkio.

Txartel birtuala

Kontratuan sartzen da Herritarren Txartel Birtualerako berariazko aplikazio mugikor bat garatzea eta martxan jartzea. *iOS* eta *Android*-erako sistema eragileetarako garatuko da, eta gutxienez bi sistema eragileen azken hiru bertsioak izango ditu kontuan. Sistema bakoitzaren (*iTunes* eta *Google Play*) komertzializazio-plataformen bidez argitaratuko dira, *W3C*-ren zehaztapenekin.

Aplikazioak aukera emango du txartel fisiko baten datuak kargatzeko, bai gailu mugikorren *NFC*ren bidez irakurriz, bai herritarraren identifikazio-datuak txertatuz, herritarra aurretik kudeaketa-tresnan alta emanda dagoelarik, aplikazioa web-zerbitzuen bidez komunikatuko da kudeaketa-tresnarekin.

Era berean, erabiltzaileek aplikazioaren erregistroari uko egiteko eskubidea izango dute, eta beraz, aplikazioaren oinarrizko informaziora sartzen jarraitu ahal izango dute, baina modu anonimoan, beren Herritarren Txartelarekin loturarik gabe, eta beraz, ezin izango dituzte haren lotura behar duten funtzionalitateak eskuratu.

Herritarren Txartela erregistratu ondoren, aplikazioak gutxienez ekintza hauek egiteko aukera emango du:

- Informazio pertsonala kontsultatzea.
- Udalak *push* motako jakinarazpenak jasotzea.
- Kontratu honetako zerbitzuekin elkarreraginean aritzea: liburutegiak, kirolak, etab.

Aplikazio mugikorraren garapena estandar irekietan eta erraz mantentzeko moduko estandarretan oinarrituko da, eta nabigazio-diseinua karruseletan edo nabigazio atsegin eta intuitiboa eta erabilera erraza ahalbidetzen dituen beste sistema alternatibo batean oinarrituko da.

Pantailak osatzen dituzten elementuak maketatzeko, elastikotasun-irizpideak erabili behar dira, gailu mugikorren tamaina eta pantaila-bereizmen desberdinetara egokitzeko.

Aplikazioaren estetika Udalarekin adostuko da eta proiektu agiri batean jasoko da, udal teknikariek baliozkotu beharko dutena.

Aplikazio mugikorrak erabiltzaileen nabigazio-jarduera erregistratuko du, aplikazioan erregistroa osatu duten ala ez, betiere aplikazioa deskargatzean eman behar duten baimen esplizituarekin, datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Abiaraztean, aplikazioa kudeaketa-tresnara konektatuko da, eta ongi funtzionatzeko beharrezkoak diren informazio-eguneratzeak dauden egiaztatuko da. Funtzionalitate batzuek Interneteko konexioa eska dezakete, adibidez, Herritarren Txartelaren erregistroa, baina behin hau egin ondoren, oinarrizko funtzionamendua izango dute, Interneteko konexiorik gabe, gailuaren datu-basean gordeta geratuko den informaziotik abiatuta.

3.5. Ezarri beharreko udal zerbitzuak

Gaur egun, Durangoko Udalak hainbat zerbitzu jartzen ditu herritarren eskura. Zerbitzu horietan, herritarrak identifikatzeko, sarbidea kontrolatzeko, ordainketak egiteko eta abarretarako eska dezake, hala nola:

- Udal instalazioetara sartzeko kontrola (ezkutu elektronikoak).
- Hiri hondakinen kudeaketa.
- Kirol arloko zerbitzuak.
- Liburutegiak.

- Adineko pertsonentzako taxi zerbitzua.
- Herritarra zerbitzu birtualetan identifikatzea.
- Herritarren Laguntza Zerbitzua.

Hona hemen Herritarren Txartelean sartu beharreko zerbitzuak.

3.5.1. Udal instalazioetara sartzeko kontrola

Gaur egun SALTO enpresak kudeatzen duen udal instalazioetara sartzeko zerbitzuarekin integratuko da, sarrerako ateetan jarritako ezkutu elektronikoen bidez.

Sistemak sare birtual bat sortzen du, irekiera-eragiketak txartelean eta manetan gordetzen ditu, eta puntu eguneratzaile batekin elkarreraginean jartzean memoria-iraulketa egiten du.

Herritarren Txartela prestatu beharko da udal instalazioetara sartzeko euskarri fisiko gisa.

Fase honetan ez da aurreikusten Herritarren Txartela zuzenean erabiltzea modalitate birtualean; aitzitik, SALTO hornitzailearen aplikazioa hasieratuz zerbitzu horren piztaile gisa jarduteko aukera emango du.

Herritarren Txartela erabiltzaileen alta sisteman sartzeko, herritarrak txartela eguneratu behar du zerbitzu hori eguneratzen duten puntuetan.

3.5.2. Ingurumen Zerbitzua: hiri hondakinen kudeaketa

Herritarren Txartela erabili behar da ingurumena kudeatu eta hezteko tresna gisa, herritarrei birziklatze-ohiturak eta ingurumena zaintzeko ohiturak hobetzen laguntzeko.

Gaur egun, SIEGARBOST enpresak kudeatzen du zerbitzua, sarraila elektronikoen bidez, herritarrei hirihondakinen edukiontziak irekitzea ahalbidetzen diena. Tamaina ertaineko parke bat dago: hondakin organikoen 100 edukiontzi eta poltsak banatzeko bi makina.

Herritarren Txartela hiri hondakinak kudeatzeko zerbitzuei erantsiko zaie, gaur egungo sisteman egokitzapenik egin beharrik gabe, zerbitzuan dauden edukiontzi kopuru handia dela eta. Beraz, Herritarren Txartela gaur egungo sistema eragilearekin bateragarria dela bermatzea.

Fase honetan ez da aurreikusten Herritarren Txartela bere modalitate birtualean zuzenean erabiltzea, baizik eta hornitzailearen aplikazioa hasieratuz zerbitzu horren piztaile gisa jarduteko aukera emango du.

3.5.3. Kirol Zerbitzua

Zerbitzu hori Herritarren Txartelean sartuko da, honela:

- Herritarren Txartel fisikoa: Herritarren Txartelaren identifikatzaile bakarra Kirol Zerbitzuak kudeatzen duen herritarraren fitxarekin elkartuta.
- Herritarren Txartel birtuala: egungo kudeaketa-sistemak *QR*n oinarritutako identifikazioa sartzeko aukera ematen duenez, herritarra bere Herritarren Txartel birtualaren bidez identifika daiteke.

Kirola kudeatzeko egungo sistemak ez du beste zerbitzu batzuekin integratzeko gaitasunik, eta horrek herritarren alta automatizatua erraztuko luke, Herritarren Txartela ematean. Beraz, herritarrak bi prozesu egin behar ditu:

- Herritarren Txartela eskatu eta ematea.
- Herritarren Txartela kirol zerbitzuei atxikitzea (altak, bajak, abonamenduak, etab.).

Hala ere, Herritarraren Txartelaren plataforma prest egongo da hurrengo fasean Kirol Zerbitzuarekin integratzeko, *API*ak erabiliz herritarrentzako arreta-guneetatik, bai arreta jaso dutenetatik, bai autozerbitzuetatik (Herritarren Kutxazainen sarea).

Fase honetan ez da aurreikusten Herritarren Txartela bere modalitate birtualean zuzenean erabiltzea, baizik eta hornitzailearen aplikazioa hasieratuz zerbitzu horren piztaile gisa jarduteko aukera emango du.

3.5.4. Liburutegien zerbitzua

Udal-liburutegiak kudeatzeko softwareak, *AbsysNET*ek, erabiltzaile bakoitzarentzat beste identifikatzaile bakar bat gehitzeko aukera du, gaur egun erabiltzen dutenaz gain, Herritarren Txartelaren erabiltzaileentzat erabiliko dena.

Beraz, Herritarren Txartel birtualaren bidez liburutegietara sartzeko mekanismoak bateragarria izan beharko du sistema horrekin, eta ez du aldaketarik ekarri beharko eremu horretan dagoen hardware-software-ekipamenduan.

Liburutegien eremuan Herritarren Txartelaren erabiltzaileek egiten dituzten erabilerak inportatuko dira. *Absysnet*-en web-zerbitzuen bidez, erabiltzaileen transakzioak lortuko dira Herritarren Txartelarekin, eta Herritarren Txartelaren plataforman sartuko dira *API*en bidez.

Herritarren Txartela erabiliko da, bai bertsio fisikoan bai birtualean, liburutegiak identifikatu eta haietara sartzeko, liburutegietan liburuak eta ikus-entzunezko materiala mailegatzeko eta liburutegiak kudeatzeko sistemekin integratzeko. Horretarako, Herritarren Txartelaren atzealdean inprimatutako barra-kodea irakurriko da, edo Herritarren Txartel birtualean sortutakoa, liburutegi-sareko irakurleek interpreta dezaketena. Kode hori bigarren identifikatzaile bakartzat gehituko da liburutegiak kudeatzeko aplikazioan.

Herritarren Txartela egungo liburutegi-txartelaren osagarri gisa erabili ahal izateko, sisteman erregistratu beharko da aldez aurretik Herritarren Txartelaren identifikatzaile bakarra, eta txartelaren titularrarekin lotu beharko da. Hori zentro horietako langileek egin ahal izango dute udal-liburutegietan, eta eskura duten sistemara sartzeko web-interfazea erabiliko da.

Herritarren Txartelean agertuko diren barra-kodeak sortzeko, *absysNet* kudeaketa-aplikazioak erabiltzen duen egungo kodetze-sistema aztertu eta emulatu beharko da, erabiltzaileei alta emateko.

3.5.5. Gizarte zerbitzuen eta hirugarren adinekoen zerbitzua

Herritarren Txartela adinekoentzako Mugikortasun Zerbitzuan sartu behar da, egungo prozesuak automatizatuz eta herritarrei zein zerbitzuaren hornitzaileei zerbitzuak eskainiz.

Adinekoentzako Mugikortasun Zerbitzuaren beharrak bete beharko dira bereziki.

Herritarren Txartela honetarako erabiliko da:

- Herritarrak Mugikortasun Departamentuaren aurrean identifikatzea, herritarrarentzat profil egokia ezartzeko eta Herritarren Txartelean kargatzeko.
- Herritarrak taxilarien aurrean identifikatzea, haren profilaren arabera dagozkion abantailak erabiltzeko, bai euskarri fisikoan bai birtualean.
- Zerbitzuak modu automatizatuan integratzea Herritarren Txartela kudeatzeko plataformarekin, bai zerbitzuak baliozkotzeko, bai egin direla jakinarazteko.

Taxilariei aplikazio bat eman behar zaie, hobaridun zerbitzuak kontrolatu eta kontsumitzeko, Herritarren Txartelaren erabiltzaileak balioztatzea eta identifikatzea ahalbideratuko diena.

3.5.6. Erregistroa eta Herritarren Arreta Zerbitzua

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

Durangoko Udalak Herritarren Kutxazainen sare bat du, herritarrei hainbat izapide administratibo modu autonomoan egiteko aukera ematen diena. Izapide horietan, besteak beste, zerga eta errolda zerbitzuak sartzen dira. Beraz, beharrezkoa da Herritarren Txartela Herritarren Kutxazainen sarean identifikatzeko bitarteko gisa aritzea.

Herritarren Erregistro eta Arretarako Herritarren Txartelak herritarra identifikatu beharko luke, eta edozein izapide administratibo egiteko aukera eman, bai arreta pertsonalizatuaren bidez, bai Herritarren Kutxazainen sarearen bidez.

Herritarraren autentifikazioa Herritarren Txartel fisikoa edo birtuala eta *PIN*a erabiliz egingo da, ahalik eta baliorik handiena emateko. Sarrera-erregistro gisa izapideak eginez, dokumentuak digitalizatzeko aukera emanez, bai eta bolanteak eta errolda-ziurtagiriak ere.

Herritarrentzako hainbat kutxazain ditu HAZek, herritar guztiei administrazio publikoan sartzen laguntzeko, haien gaitasun teknologikoak edozein direla ere, eta berezko gailurik izan gabe, hala nola ordenagailu pertsonalak, Interneteko konexioa, NANen irakurgailuak, inprimagailuak, eskanerrak, etab.

Herritarra Herritarren Txartelaren bidez herritarren arretarako autozerbitzuko bulegoen aurrean zuzenean kautotzen bada, doako izapideak eta ordainketa behar duten izapideak egin ahal izango dira, bai eskudirutan bai banku-txartelarekin.

3.5.7. Identifikazioa eta sarbidea

Herritarren zerbitzuak ematen dituzten erakundeek txartela erabili ahal izango dute erabiltzailea identifikatzeko bitarteko gisa, eta ezarritako sistema teknologikoetara sartzeko kontrola eskuordetu. Kategoria honetako zerbitzu guztiak eskaintzeko, nahitaezkoa izanen da datu pertsonalak babesteko indarrean den araudia betetzea.

Identifikazioa metodo hauen bidez egin daiteke:

- Txartelen txipean grabatutako informazioaren bidez.
- Txarteletan inprimatutako barra-kodea irakurriz.
- Bisualki, Herritarren Txartela pertsonalizatu egingo delako eta erabiltzaileen argazkia eta datuak izango dituelako.
- Herritarren Txartelaren aplikazio mugikorra instalatuta duten gailuen *NFC* erabiliz, edo bere txartel pertsonalari lotua den txartel fisikoaz.
- Aplikazio mugikorraren bidez (txartel birtuala) sortutako erabiltzailearen *QR* kodea edo barra-kodea irakurriz, eta gailuaren pantailan aurkeztuta.

3.5.8. Interfazeak hirugarrenei

Herritarren Txartelaren plataformak interfaze desberdinak izango ditu hirugarrenentzat, udal zerbitzuak Herritarren Txartelarekin integratzea errazteko.

*API*en segurtasuna, ahal dela, *token JWT* (*JSON Web Token*) bidez egingo da.

Eskura dauden interfaze nagusiak hauek dira:

- *SOAP* zerbitzuak.
- *API RESTFul* zerbitzuak.
- *ABLE*ak.

Interfaze horiek, gutxienez, funtzio hauek izango dituzte:

- Zentroak, egutegiak, enpresa operadoreak eta terminalak kudeatzea.
- Profilen eta erabiltzaileen kudeaketa.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

- Sistemaren erabiltzaileen kudeaketa.
- Tarifak, tituluak, paketeak eta deskontuak kudeatzea.
- Erosketak, erreserbak, kontsumoak.
- Jakinarazpenak.
- Txostenak.

3.5.9. Etorkizuneko zerbitzuak

Herritarren Txartela herritarrei balioa ematen dien eta zerbitzu berriak sartzeko aukera ematen duen elementua denez, beretzat gordetzen da zerbitzu berriak gehitzeko gaitasuna, hala nola bizikletak alokatzea, ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak, etab.

3.5.10. Beste zerbitzu batzuekin integratzeko aukerak

Oro har, Herritar Txartelaren sistemak ezartzeko, arkitektura integragarria erabiliko da, sistema propioekin eta kanpokoekin erabiltzeko modukoa. Diseinu eskalagarria du, modularra eta ebolutiboetara egokitzen dena.

Egungo eta etorkizuneko esparruak eta modularitatea jasateko egonkortasuna ahalbidetuko duen arkitekturaren arabera garatuko da *backend*-a edo kudeaketa-sistema.

Elkarreragingarritasun geruza bat diseinatu eta ezarriko da, eskatzen diren ezaugarri funtzionalak beteko dituena, Herritarren Txartela plataformaren arkitektura modularrean oinarritua.

Elkarreragingarritasun-geruzak bi maila izanen ditu:

Elkarreragingarritasun semantikoa

Sistemen artean transferitzen eta trukatzen diren datuak sistema bakoitzarentzat ulergarriak izango dira. Beraz, informazioa aztertu eta zehaztuko da, informazio hori esanguratsua eta erabilgarria izan dadin.

Elkarreragingarritasun teknikoa

Hainbat sistemaren artean komunikatuko eta datuak trukatuko dira, softwarearen osagaien arteko lankidetza barne, baita interfazea eta programazio lengoaia berdinak ez diren kasuetan ere.

Elkarreragingarritasun-geruzak hainbat komunikazio-protokolo izango ditu, hala nola:

- *WebServices RESTFul*.
- *ETL*: erauzketa-, transformazio- eta karga-prozesuak.
- Fitxategiak *SFTP* bidez modu seguruan trukatzea.
- *API websocket*.
- *HTTPS* web-integrazioko zerbitzuak.

Aurreko ataletan deskribatutako teknologia eta arkitektura funtzionala ere elkarreragingarritasun-geruzan aplikatuko da, plataforma irmo eta trinkoa eraikitzeko.

3.6. Hizkuntza-betekizunak

Kontratu hau hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende dago. Araubide hori Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak ezartzen du 6. artikuluan, eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legeak arautzen du, bai eta hura garatzen duen araudiak ere, besteak beste, Durangoko Udalaren 2010eko azaroaren 9ko euskararen erabilera sustatzeko eta

normalizatzeko udal-araudiak, eta bat dator Udalak bere hizkuntza-jarduera arautzeko dituen planekin, hala nola Durangoko Udalaren Euskararen erabilera normalizatzeko 2019-2022 planarekin eta Euskara sustatzeko eta erabiltzeko 2019-2022 ekintza planarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritakoa betez, baldintza-agiri hauetan jasotzen diren hizkuntza-betekizunak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren funtsezko betebeharra dira, eta horiek ez betetzeak gainerako baldintzen ondorio berberak izan ditzake, hau da, zehapen-sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

Beraz, kontratu honek nahitaez bete behar duenez hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea, plataformak nahitaez ezarri beharko ditu euskara eta gaztelania modulu guztietan, laguntza-testuetan eta beste interfazeetan.

Durangoko Udalaren eta haren Erakunde Autonomoen administrazio-kontratuetan hizkuntza-betekizunak txertatzeari buruzko Erabakiak hala aginduta, testu hau sartu da: Enpresa esleipendunak bi hizkuntza ofizialetan emango ditu kontratuaren xede diren ondasun eta produktuen erabilera-eskuliburuak edo dokumentazioa, softwareen testu- eta soinu-interfazeak barne.

3.7. Herritarren Txartela hardwarez hornitzea

Ondoren azaltzen den hardwarea eman behar da, deskribatutako ahalmenekin lotuta. Hardware hori “giltza eskura” motako soluzio globalaren beste elementu bat da, eta horrek esan nahi du guztiz bateragarria izan behar duela proposatutako irtenbidearen elementuekin, eta guztiz integratuta egon behar duela.

3.7.1. Jaulkipen-puntuak

Herritarren Txartelaren jaulkipen-puntuei esker, unean uneko jaulkipena egin ahal izango da, bai unean egindako eskaeretarako, bai herritarraren eta turistaren webguneetatik egindako eskaerak prozesatzeko.

Herritarren Txartelaren **hiru (3) jaulkipen-puntu**, bakoitzak honako hauek dituela:

- Lantoki bat:
  - Instalatutako sistema eragilea: *Windows 10 Pro*, goikoa edo baliokidea.
  - Prozesadorea: *Intel Core i5* edo berriagoa, edo baliokidea.
  - *RAM* memoria: *4 GB DDR4*.
  - Disko gogorra: *240 GB SSD*.
  - *Intel HD Graphics 630* txartel grafikoa, goikoa edo baliokidea.
  - Soinu- eta sare-txartelak: integratuak.
  - Konexioak: entzungailuak, mikrofonoa, 1 *USB 2.0* eta 1 *USB 3.0*.
  - *LED* 24 monitorea, 1920 x 1080 bereizmena edo handiagoa.
- 1 Teklatua + sagua.
- Txartelak grabatzeko inprimagailu bat:
  - *LCD* pantaila.
  - 200 txarteleko kargagailua.
  - Zinta automatikoki detektatzea.
  - 1200 *dpi* inprimaketa monokromoan / 300 *dpi* koloretan.
  - Goi-mailako inprimaketaren kalitatea.
  - *ISO CR80* edo *ISO CR79* edo 0.38mm (15mila) ~ 1.0mm (40mila) txartelak.
- Estanpazio- eta grabazio-softwarea.
- 1 *WebCam* argazkiak ateratzeko.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

- 1 *Mifare* txartelen *USB* irakurgailua/grabagailua.

Kontratuan ekipoaren ohiko funtzionamendurako behar-beharrezkoa den beste edozein elementu sartuko da, hala nola, konexio-elementuak, instalazioa, eta jaulkipen-puntuak Udalak zehazten dituen tokietan abian jartzea.

Zerbitzuak garatu eta integratu ondoren, esleipendunak proben plana egin beharko du, konponbidearen alderdi guztiak bermatzeko bezain zehatza. Udalak balidatu egin beharko du proba-plan hori, eta proba horiek egin izanaren txostenak aurkeztu beharko dira pilotu funtzionala ezartzeko fasean.

3.8. Segurtasun-baldintza orokorrak

Soluzioak segurtasun baldintza orokor hauek beteko ditu:

- Sistema erabiltzeko eta baimendutako pertsonei datuak eta informazioa eskuratzeko mugak jartzea, identifikatzeko, autentifikatzeko, sarbide-eskubideak kudeatzeko eta, hala badagokio, pribilegioak kudeatzeko mekanismoen bidez. Sistemaren arduradunak edozein unetan konfiguratu eta administra ditzake mekanismo horiek. Zehazki, erabiltzaile-gakoen eta konfigura daitezkeen pasahitzen sistema baten bidez edo ziurtagiri elektronikoa erabiliz sartu ahal izango da sisteman.
- Erabiltzaile-profilak ezartzea, hau da, erabiltzaile bakoitzarentzat sistemaren baliabideak, datuak eta aplikazioak erabiltzeko baimenen multzoa eta mailak, eta horiek konfiguratzeko tresna atsegina.
- Eskuragarritasun-bermeak, zerbitzua eta informazioa berreskuratzeko eta eskuratzeko bermeak, babes-kopiak eta egindako transakzioen trazabilitatea. Aztarna-fitxategi bat izango dute, sistemarako sarbideen eta erabiltzailearen ekintza oldarkorrenen berri etengabe emateko, hala nola fitxategiak ezabatzea edo informazio-kopuru handiak ezabatzea. Datuak kontserbatu eta babesteko berme berezi baten ondorioz beharrezkoak diren kasuetan, kontsultarako eta informazioa eskuratzeko auditoriak ere aktibatu ahal izango dira. Kasu guztietan, ikuskapen-fitxategian edo transakzioen trazabilitatean, gutxienez, nork egin duen kontsulta, ezabaketa edo aldaketa, eta prozesuaren eguna eta ordua erregistratu beharko dira.
- Sistema baimenik gabeko manipulazioetatik babestea. Alde horretatik, arreta berezia jarriko da aldez aurretik identifikatzea eskatzen duten web orrietara ezin dela sartu bermatzeko.
- Aplikazioa gaizki erabiltzean ahalik eta akats gutxien egitea, defentsa-programazioaren, erabiltzailearentzako pantaila lagungarrien, menu bertikal flotatzaileen, *scroll*-eko leiho-zuhaitzen, laguntza-leiho gainjarrien eta abarren bidez.
- Datuen eta informazioen galeraren prebentzioa bermatuko duten mekanismoak, hau da, osotasunaren bermea.

3.8.1. Sistemaren ikuspegi orokorra

Herritarren Txartela ezartzearen ondorioz garatutako moduluak Durangoko Udalaren egungo sistema informatikoekin integratuko dira.

Euskarri berria – Herritarren Txartela – gaur egungo inguruneetan erabiltzeko eta etorkizuneko funtzionaltasunetara iristeko behar diren ezaugarri eta gaitasunekin definituko da, hala nola ziurtagiri digitalen erabileran oinarritutakoekin. Normala denez, hornitzaileek ingurune horiek egokitu beharko dituzte Herritarren Txartelarekin hitz egin ahal izateko.

Kontsumoak egiteko aukera ematen duten zerbitzuguneetatik, batzuk Herritarren Txartela Plataformara konektatuta egon daitezke, kanpoko sare independente baten bidez, eta beste batzuk arreta gabe jardun dezakete eta transakzioen fitxategiak modu planifikatuan helarazi, *batch* moduan prozesatu daitezen.

Era berean, kanpo-sarearen bidez *on-line* moduan konektatuta egongo dira Herritarren Txartela diruzorroa kargatzeko prestatutako terminalak. Terminal horiei esker, kreditu-txartel bidez egin ahal izango dira ordainketak, Durangoko Udalak zehazten duen ordainketa-pasabidea erabiliz.

Komunikazio-azpiegitura behar bezala isolatuta eta babestuta egongo da, eta Herritarren Txartela Plataformak beharrezko neurriak hartuko ditu DBLOn araututako araudia betetzen dela bermatzeko.

4. Prestakuntza

Kontratuan sartzen da udal-langileak plataforma eta hari lotutako gailuak erabiltzen trebatzeko behar den prestakuntza, Udalak zehazten dituen erabiltzaile-profilen arabera.

Kontratistaren ardura izanen da prestakuntza hori ematea eta prestakuntza behar bezala egiteko behar diren baliabide material eta pertsonal guztiak ematea. Prestakuntza lan guztiak eskaintzaren prezioan sartuta daude.

Prestakuntza lanak ez dira azpikontratatuko eta ez da plataforma digitalik erabiliko.

Kontratu hau ezartzen duten teknikariek emango dute trebakuntza, Udalarentzat harremana hobetzeko eta zuzenean aritzeko.

Gutxienez hogei (20) orduko prestakuntza emango zaie plataformaren administratzaile-profila duten udal-langileei (gehienez ere lau pertsona), eta hamar (10) orduko prestakuntza, gehien eragiten dien zerbitzuetako arduradunei (zentroak) (gehienez hogeita bost (25) pertsona).

Prestakuntza ekintza ezartzen den lehen hilabeteetan eginen da. Ordu eta lanaldien banaketa Udalak erabakiko du, enpresa esleipendunak aurkeztutako prestakuntza-plana kontuan hartuta.

5. Instalatzeko eta abian jartzeko epeak

Durangoko Udalak Herritarren Txartela ezarriko du, herritarrek zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko eta kontsumitzeko modua eta teknologia berriak erabiliz zerbitzu horien kudeaketa arintzeko.

Horretarako, sistema hori bi fasetan ezartzea proposatzen da. Hala, herritarrari ahalik eta azkarren zerbitzua ematen hasi ahal izango da, eta gero, zerbitzu osagarriak gehituko dira.

5.1. Ezartzeko prozedura

Atal honetan Herritarren Txartela modu eraginkorrean ezartzeko plana proposatzen da, herritarrei hainbat zerbitzu emateko, modalitate ezberdinetan.

Zerbitzuak arian-arian ezartzeko plana proposatzen da, Herritarren Txartel berria arin hartzeko aukera emanez, bai Udalak bai herritarrek, etapa hauen arabera:

1. Plataforma ezartzea. Herritarren Txartela zerbitzuen gune nagusia izango den plataforma ezarriko da.
2. Konfigurazioa eta gaikuntza. Plataformaren konfigurazioa udal zerbitzu bakoitzaren beharren arabera eginen da. Halaber, Herritarren Txartela plataforma eta haren moduluak behar bezala erabiltzeko gaitasuna emanen zaie zerbitzuko arduradunei.
3. Pixkanakako hedapena. Udal zerbitzu bakoitzean Herritarren Txartela zabaldu eta aktibatuko da.
4. Pilotua. Zerbitzu desberdinen funtzionamendu-pilotuak ezarriko dira. Horien helburua sistemaren funtzionamendu egokia egiaztatzea eta herritarrei eskaintzeko beharrezkoak diren doikuntza operatiboak egitea izango da.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

5.2. Jarraipen- eta kontrol-mekanismoak

Prozesu osoan zehar, bilerak egin beharko dira aldizka, proiektuaren aurrerapena antolatu eta baliozkotzeko, bai eta bileren aktei, planifikazioei, azterlanei, analisiei, garapenei, eskuliburuei eta proiektuaren zuzendaritzak eskatzen duen beste edozein dokumenturi buruzko dokumentazioa ere. Maiztasuna kontratuaren arduradunak zehaztuko du.

Esleipendunak proiektu buru bat izendatuko du, proiektua gauzatzen den bitartean Udalarekin izango duen solaskide nagusi gisa. Proiektu buruak proiektuaren bilakaeraren etengabeko jarraipena egingo du, eta egokitzat jotzen dituen teknikariekin batera, deitzen diren jarraipen eta azterketa teknikoetara joango da.

Kontsulta edo gorabeheraren bat proiektu buruari bidaltzen bazaio, hark erantzun egin beharko du, gorabehera gertatzeko arrazoia eta erantzun-denbora adierazita, gehienez ere 3 laneguneko epean.

Kontratuaren xede diren lanak egiten diren bitartean eta euskarri teknikoaren fasean, esleipendunak konpromisoa hartzen du eskatzen zaizkion informazio eta agiriak emateko.

Ezagutza eskualdatzeko plan bat erantsiko da, kontratua bukatutakoan zerbitzuaren jarraipena ziurtatzeko.

5.3. Proiektuaren faseak

5.3.1. 1. fasea – 2023ko irailaren 15a

Herritarren Txartelaren oinarrizko ezarpena egingo litzateke.

- Herritarren kudeaketa eta aplikazioa aplikatzea.
- Txartelak inprimatzeko eta eguneratzeko puntuak instalatzea
- Udal instalazioetarako sarbidea kontrolatzeko zerbitzua. Gaur egun SALTO enpresak kudeatzen duen udal instalazioetara sartzeko zerbitzuarekin integratuko da, sarrerako ateetan jarritako ezkutu elektronikoen bidez.
- Liburutegi Zerbitzua. Liburutegiko identifikazioa, liburuak erreserbatzeko
- Gizarte Zerbitzu eta Hirugarren Adinekoen Zerbitzua (Taxi-Lagun). Herritarren Txartela adinekoentzako mugikortasun zerbitzuan sartu behar da, egungo prozesuak automatizatuz eta herritarrei zein zerbitzuaren hornitzaileei zerbitzuak eskainiz.
- Kirol Zerbitzua. Udalerriko kirol instalazioetara sartzen utziko du.

5.3.2. 2. fasea – 2023aren amaiera arte

- Erregistro eta Laguntza Zerbitzua (kutxazainak). Kutxazainen zerbitzuarekin integratzea, Herritarren Txartela kutxazainetan autentifikatzeko metodo gisa erabili ahal izateko; horrela, herritarrei udal tramiteak egiteko aukera emango zaie.
- OTA zerbitzua. Txartela euskarri fisiko gisa erabiltzea, oraingo zerbitzuaren hornitzailearen diru-zorroa sartuta.
- Ingurumen Zerbitzua: Hiri hondakinen kudeaketa. Herritarren Txartela erabili behar da ingurumena kudeatu eta hezteko tresna gisa, herritarrei birziklatze-ohiturak eta ingurumena zaintzeko ohiturak hobetzen laguntzeko. Gaur egun, SIEGARBOST enpresak kudeatzen du zerbitzua, sarraila elektronikoen bidez, herritarrei hiri-hondakinen edukiontziak irekitzen laguntzeko.

Proiektua garatu bitartean, esleipendunak mantentze-lan zuzentzaileak eta ebolutiboak egingo ditu, plataformako administratzaileei prestakuntza emango die eta proiektuaren jarraipena egingo du.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

6. Kontratuaren prezioa

Zerbitzu horien hornitzaileek Herritarren Txartelean sartu beharreko zerbitzuak egokitzeko egiten dituzten kostuak enpresa esleipen-hartzailearen kontura izango dira, eta beraz, lizitazioaren prezioaren zenbateko osoan sartuko dira. Kostu horiek 41.000 euro (gehi dagokion BEZa) ingurukoak izango direla kalkulatzen da.

Osagai eta zerbitzu guztien prezioa banakatuta adierazi behar da.

Urteko mantentze-zerbitzuaren prezioa adierazi beharko da, berme-alditik aurrera egin ahal izateko. Zerbitzu honetan instalatutako aplikazio guztien *Hot-Line* laguntza eta mantentze-lanak sartuko dira. Zerbitzu honen kontratazioa Durangoko Udalari dagokio.

Lizitazio-prezioaren guztizko zenbatekoa 181.818,18 eurokoa izango da, gehi dagokion BEZa.

7. Bermea

Enpresa esleipendunak 36 hilabetez bermatuko ditu sistemaren garapen guztiak, proiektuaren ondoriozko garapenak ofizialki eta behin betiko jasotzen diren egunetik hasita. Epe horretan, atzemandako akatsak konpontzeko behar diren aldaketa, berrikuspen eta laguntza guztiak egin beharko ditu. Hornitzaileak garapenen funtzionamendu egokia bermatuko du, espero diren funtzionalitateak betetzeko egindako konfigurazioekin.

Enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu elementu matxuratuak edo akastunak konpondu edo birjarri behar dituzten hornidura, garraio eta kudeaketa guztiak. Ekipo baten ordez berdin-berdina jarri ezin denean, prestazio bereko edo handiagoko beste bat jarriko da.

Berme honetarako zerbitzu-mailaren akordioa sartzen ahalko da eskaintzan, eskatzen diren baldintzak hobetzeko.

(Durangon sinatua)

Jesús Iriondo Aldana

Informatika eta Komunikazioen Arduraduna

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

Aurkibidea

1. Testuingurua 1
2. Kontratuaren gaia 1
3. Kontratuaren baldintzak 2
3.1. Gutxieneko baldintza orokorrak 2
3.2. Gomendatutako teknologia 3
3.3. Enpresa esleipendunak garatu beharreko zerbitzuak eta betebeharrak 4
3.4. Herritarren Txartela kudeatzeko plataforma 5
3.4.1. Deskribapen tekniko orokorra 5
3.4.2. Deskribapen funtzional orokorra 6
3.4.3. Udaleko eragiketa-teknikarientzako funtzionalitateak kudeaketa-tresnan 9
3.4.4. Herritarrentzako funtzionalitateak 10
3.4.5. Zerbitzuen osagai komunak 10
3.4.6. Zerbitzu generikoaren backend-a (barne kudeaketa-softwarea) 10
3.4.7. Zerbitzu-puntu generikoa 11
3.4.8. Zerbitzu generikoaren puntu birtuala 11
3.4.9. Zerbitzuak 11
3.4.10. Arkitektura teknikoa 12
3.4.11. Zerbitzarien arkitektura 13
3.4.12. Herritarren webgunea eta aplikazioa 13
3.4.13. Web / app-aren ezaugarriak 13
3.4.14. Herritarren Txartel motak 14
3.5. Ezarri beharreko udal zerbitzuak 15
3.5.1. Udal instalazioetara sartzeko kontrola 16
3.5.2. Ingurumen Zerbitzua: hiri hondakinen kudeaketa 16
3.5.3. Kirol Zerbitzua 16
3.5.4. Liburutegien zerbitzua 17
3.5.5. Gizarte zerbitzuen eta hirugarren adinekoen zerbitzua 17
3.5.6. Erregistroa eta Herritarren Arreta Zerbitzua 17
3.5.7. Identifikazioa eta sarbidea 18
3.5.8. Interfazeak hirugarrenei 18
3.5.9. Etorkizuneko zerbitzuak 19
3.5.10. Beste zerbitzu batzuekin integratzeko aukerak 19

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

3.6. Hizkuntza-betekizunak 19
3.7. Herritarren Txartela hardwarez hornitzea 20
3.7.1. Jaulkipen-puntuak 20
3.8. Segurtasun-baldintza orokorrak 21
3.8.1. Sistemaren ikuspegi orokorra 21
4. Prestakuntza 22
5. Instalatzeko eta abian jartzeko epeak 22
5.1. Ezartzeko prozedura 22
5.2. Jarraipen- eta kontrol-mekanismoak 23
5.3. Proiektuaren faseak 23
5.3.1. 1. fasea – 2023ko irailaren 15a 23
5.3.2. 2. fasea – 2023aren amaiera arte 23
6. Kontratuaren prezioa 24
7. Bermea 24

[Jauzi egin euskarazko testura]

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS regulador del contrato *Tarjeta Ciudadana* (Ref. P1.3: 2.3)

[Saltar al índice]

1. Contexto

El Ayuntamiento de Durango, según Decreto Foral 36/2022 de 5 de abril de la Diputación Foral de Bizkaia, ha recibido una transferencia de capital por importe de 1,3 millones de euros del Fondo extraordinario Herriak Egiten (fondos públicos destinados al desarrollo y puesta en marcha de planes de inversiones en el ámbito de la innovación tecnológica), para el establecimiento de la estructura básica del municipio, entendiéndose por estructura básica los gastos presupuestarios de los capítulos 6, 7 y 9 del estado de gastos afectos a inversiones.

Son objetivos estratégicos de este Ayuntamiento, la modernización de los sistemas de información, así como la actualización y mejora en la utilización de los medios tecnológicos. La Tarjeta Ciudadana queda enmarcada en esta actualización y mejora.

2. Objeto del contrato

A efectos de este contrato, se entenderá por Tarjeta Ciudadana de Durango, tanto la tarjeta física como la tarjeta virtual (*app*). Las dos modalidades son objeto de este contrato. Algunas funcionalidades que aporta la nueva tarjeta física, tendrán su equivalente en una tarjeta virtual o aplicación para teléfonos inteligentes que hará uso de tecnología de comunicación inalámbrica. Esta tarjeta integrará diferentes servicios que actualmente ya presta el Ayuntamiento de Durango, detallados más adelante en este documento.

El proyecto requiere el suministro de una solución integral de Tarjeta Ciudadana, formado por los siguientes componentes:

- Plataforma central de Tarjeta Ciudadana.
- Módulos para los diferentes servicios municipales.
- App/web de ciudadanos/as.
- Puestos de emisión de la Tarjeta Ciudadana.
- Tarjetas Ciudadanas.

Todos estos productos hardware y software son necesarios para el lanzamiento de tarjetas físicas y de una tarjeta en formato virtual a través de una aplicación móvil, y el establecimiento, configuración o adaptación de las interfaces de los sistemas municipales existentes para que las soporten, de forma que se conceptúe e implemente un modelo único de identidad ciudadana.

Se requieren asimismo los servicios de desarrollo e implantación del proyecto de Tarjeta Ciudadana del Ayuntamiento en los servicios municipales, siendo su objetivo disponer de un medio que identifique al/a la ciudadano/a ante cualquier servicio, equipamiento o trámite municipal, incluyendo en su caso transacciones económicas.

En el presente Pliego de prescripciones técnicas se establecerá el alcance y las condiciones que debe cumplir la oferta presentada por el/la licitador/a para el suministro, instalación, configuración y puesta en servicio de una Tarjeta Ciudadana.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

Al servir de soporte para la prestación de servicios municipales de todo tipo (deportes, bibliotecas, cultura, medio ambiente, etc.), se hará especial hincapié en la interoperabilidad de la solución planteada respecto de las soluciones existentes actualmente para cada servicio.

La Tarjeta Ciudadana incide en el incremento de la calidad del servicio a través de diferentes vías como el aumento de la agilidad de las operaciones, la disposición de nuevos canales de distribución de los servicios y un mayor acercamiento de la información al/a la ciudadano/a.

Permite la disminución de los tiempos de prestación de los servicios y un incremento general del valor añadido proporcionado, y en consecuencia, de la satisfacción del/de la ciudadano/a. Debe además disponer de formato físico y digital, portándola en un dispositivo móvil.

La Tarjeta Ciudadana permitirá incrementar la calidad de los servicios públicos en base a:

- La disponibilidad de nuevas vías para la relación ciudadano/a–administración pública.
- El aumento de la agilidad de las operaciones.
- La disponibilidad de nuevos canales de distribución de estos servicios,
- Un mayor acercamiento de la información al/a la ciudadano/a, mediante canales 24x7 web y autoservicio.
- La disminución de los tiempos de prestación de los servicios.
- Dar un servicio efectivo, cercano, ágil y rápido a los/las ciudadanos/as.
- Un incremento general del valor añadido proporcionado, y en consecuencia, de la satisfacción del/de la ciudadano/a.

El objetivo final es conseguir una administración más inteligente, multicanal y proactiva.

Se requiere una solución integral “llave en mano” que incluya tanto el software como el hardware necesario para la puesta en servicio efectiva de la Tarjeta Ciudadana, incluyendo todos los trabajos, componentes y elementos precisos para su funcionamiento completamente integrado con los sistemas existentes.

La codificación correspondiente a la nomenclatura Vocabulario Común de Contratos (CPV) de la Comisión Europea es:

- 48825000-7 – Servidores web.
- 72210000-0 – Servicios de programación de paquetes de software.
- 72263000-6 – Servicios de implementación de software.

3. Requisitos del contrato

3.1. Requisitos mínimos generales

Las principales funcionalidades de la Tarjeta Ciudadana serán, como mínimo, y escalables, las siguientes:

- Identificación del/de la titular ante la administración municipal, permitiéndole tanto el acceso a instalaciones y edificios (acceso físico) como el acceso a aplicaciones y sistemas a través de medios electrónicos (acceso lógico).
- Medio de pago para determinados servicios municipales.

En base a este principio se debe diseñar un conjunto de servicios con estructura granular cuya combinación permitirá la cobertura de los requerimientos de cada organismo municipal. Lo que redundará en el beneficio actual y futuro de facilidad de operaciones, reducción del mantenimiento, incremento de la integridad y facilidad de crecimiento hacia nuevos servicios.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

Las Tarjeta Ciudadana física deberá estar soportada sobre una tecnología que asegure la mayor seguridad e interoperabilidad existente en la actualidad en el mercado, siempre manteniendo el foco en la facilidad de uso por parte del/de la ciudadano/a y una óptima experiencia del/de la usuario/a.

En este sentido las tarjetas sin contacto (*CTLS*) pueden ofrecer una excelente relación de seguridad y usabilidad. Las tarjetas integrarán un chip de proximidad, sin contacto, con capacidades criptográficas fuertes.

Las tarjetas tendrán capacidad técnica para dar soporte a los distintos servicios objeto del proyecto Tarjeta Ciudadana, así como los demás descritos en el presente Pliego de prescripciones técnicas, en los aspectos de funcionalidad, usabilidad y seguridad, y permitirán procesar y almacenar información, incluyendo los mecanismos precisos de seguridad y acceso.

La memoria de las tarjetas tendrá una capacidad mínima de 4 Kb que garantice la operativa en los servicios actuales y la incorporación de nuevos servicios en el futuro.

Las tarjetas serán estampadas con los datos del/de la ciudadano/a, su fotografía en color, un número identificativo, la identidad gráfica del Ayuntamiento y demás información pertinente que sea necesaria o conveniente para su óptimo uso de manera inmediata en puntos de emisión instantánea.

